

DIRU-SARRERAK

Gure produktu sorta hasiera batean giltzurrunez, giblez, pankreez, birikez eta hestez osatua egongo da. Ez dugu baztertzeko etorkizun batean gure produktuek **aniztasun** handiagoa izatea. Aurreikusten dugu lehengo urtean 8 giltzurrun, 4 gibel, 4 pankrea, 2 birika eta 6 heste ekoitziko ditugula, baina hau eskariaren arabera izango da.

Sarrerak	Transplante motak
15.000€	Giltzurrunak (8)
30.000€	Gibela (4)
20.000€	Pankrea (4)
50.000€	Birika (2)
25.000€	Hestea (6)

DIRU SARRERA MOTAK

Diru bilketa, ordainketa bakarreko diru sarrera izango da. Gure kasuan, hasiera batean, **Osakidetza** izango da gure bezero bakarra. Ondorioz, diru sarrera bakarrak Osakidetzatik etorriko dira. Beraz, Osakidetzarekin lanean aritzeko, gure diru bilketa, ordainketa bakarrean jasoko dugu.

Etorkizun batean, ordainketa errepikariak ere jasoko ditugu. Enpresa handitzen hasten bada, gure produktuak Osakidetzari saltzeaz aparte, **partikularrei** ere salduko diegu **ospitale pribatu** zein beste herrialdeetako pertsoneri.

Gure produktuek, prezio finko bat izango dute hasiera batean. Dena ondo joanes gero eta gure proiektuak arrakasta handia lortuko balu **prezioak igotzeko** asmoa izango genuke. Gainera berrinbertitu eta azpiegiturak sortuko genituzke. Esan beharra dago, gure produktuen prezioak desberdinak izango direla eskeintzen dugunaren arabera.

Proiektuak inbertsio handia eskatzen duenez, 100.000 euroko **mailegua** eskatuko diogu BBVAri. Mailegu honek UTBen % 4,5eko interesa du eta itzultzeko 10 urte

arteko epea izango dugu. Dirua, materialak eta ekipoak erosteko eta proiektua garatzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk ordaintzeko erabiliko da.